

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Berbizi enpresa martxan jartzeko ezinbestekoa da beste elkarte edota enpresa batzuekin harremanetan jartzea, izan ere, haiekin gure negozio ereduak aurrera jarraituko lukeuko luke. Guk **enpresa pribatu** eta **publikoekin** egingo dugu bat; ekimen pribatuetako enpresek administrazio kontuak bideratzen lagunduko digute; eta publikoek, produktuen trukaketa eta salmentak bideratzeko kontuekin.

Gauzak horrela, arlo hauetan egingo genuke elkarlana:

- Teknologia
- Garraioa
- Tokiko erakunde eta azokak
- Lineako ordainketa- eta segurtasun-enpresak
- Birziklatze eta iraunkortasun elkarteak
- Azoken lekuko udalekin harremanak

INFORMATIKOA



Plataforma onlinea eta aplikazioa sortzeko, *Iker Agirresarobe Gallardo* informatikoarekin egingo genuke bat, izan ere, gure enpresako baten familiartekoa da eta hasierako urratsetan laguntza eskainiko liguken. Bera, Arrasateko Udaletxeko informatiko bat da, eta bere lanbide ibilbidean zehar hainbat aplikazio eta plataforma programatu ditu.



LAWTEK ABOKATUAK

<https://www.lawtekabogados.com/>

Teknologian eta datuen babesean espezializatutako abokatu bat funtsezkoa da enpresak pribatutasun-legeak betetzen dituela ziurtatzeko, lege-arriskuak aurreikusteko eta segurtasun-arrakalak kudeatzeko. Horrek enpresa eta haren erabiltzaileak babesten ditu, eta etengabe aldatzen ari den ingurune legal eta teknologikoan konfiantza eta adostasuna mantentzen laguntzen du. Horretarako, Lawtek enpresarekin harremanetan jarriko gara, beraiek horrelako zerbitzuetan adituak direlako eta teknologiarekin lotutako lege-aholkularitza espezializatua eskaintzen dutelako. Gainera, Durangokoak dira, eta errazago egingo da beraiekin kontaktuan jartzea hurbil izanda.



GARRAIO-AGENTZIAK

Garraio-agentziekin elkarlanean arituko gara, produktuak helmugara eraman ditzaten. FedEx eta DHL bezalako plataformekin. Baina batez ere, Correos-ekin, ziurrena baita.



ARROPA DENDAK

Arropa dendekin aliantzak egingo ditugu, stock-an duten produktuak online bidez saltzeko aukera eskaintzeko. Horretarako, biltegian dituzten produktuak plataforman eskegiko ditugu, jende gehiagorengan heldu dadin. Bizkaian dauden hainbat denda pentsatu ditugu, elkarlanean hazteko: Japi (Elorrio), Sergent Mayor (Durango), Aramburu Serafin (Bilbo) eta Provenza (Durango).



Azoken kokapena hilabetero aldatuko denez, eta herri desberdinetan egingo ditugunez, herri horietako udalekin harremanetan jarriko gara, beraiek azoka egiteko baimena emateko. Azoka egingo dugun herri bat **Elorrio** izango da. Beraz, Elorrioko udalarekin harremanetan jarriko gara. Horretaz gain, beste herri batzuetako udalekin ere hitz egingo dugu: **Durango**, **Abadiño**, **Zornotza** eta **Arrasate**, hasiera batean.

UDALAK

Proiektu honen sortzaileak bost gara eta bakoitzak bere zeregina izango du ikasketen arabera. Haatik, bostok laguntzeko prest egongo gara esaterako, azoketan.

Garazi 	Taldea administratzen, eta taldeko betebeharrak baita zereginak komunikatzeko eta jarduteko lanak egingo ditu.
Raymond 	Raymond produktuen garraioaren kudeaketaz arduratuko da, eta bere rola produktuen garraio zuzena ziurtatzea da.
Udane 	Udanek Enpresen Administrazioa ikasiko duenez, administrazio lanak egingo ditu.

Irene 	Irenek zuzenbidea ikasteko gogoak dituenetz, lege-laguntzaile gisa edo lege-arloekin lotutako administrazio-roletan ibiliko da lanean.
---	---

Horretaz gain, gure enpresan beste langile batzuk egongo dira lanean. Zehazki, **informatiko** bat behar dugu webguneko administrazio kontuetan aritzeko, hori, **Iker Agirresarobe Gallardo** litzake, izan ere, Arrasateko Udaltzaingoko informatikoa da eta gai horren inguruan lagunduko gaitu.

Informatikoaz gain, **bost langilerekin** bat egingo dugu arroparen kontuak antolatzeko eta kudeatzeko, objektuak ordenatzeko eta lan-eremua garbi mantentzeko. Beraiek gehien bat **azoketan** lan egingo dute, eremu hori ondo antolatuta edukitzeko eta dena garbi mantentzeko. Izan ere, gure enpresan xehetasunekiko arreta eta berehalako prestasuna baloratuko dira, beraz, ezinbestekoa da bezeroak enpresako kideekin zuzeneko harremana izatea. 5 langile horiek aukeratzeko, **lan elkarrizketak** antolatuko ditugu, eta gure enpresarekin hoberen bat egiten duten pertsonak aukeratuko ditugu.

